

JAIETAKO PROGRAMAREN AZALA EGITEKO LEHIAKETA

1. Lehiaketa honetan edozein pertsonak har dezake parte.
2. Azaleko irudiak 30 x 42 zentimetroko neurria izango dute eta 300 ppp-ko erresoluzioa, eta formatu bertikala.
3. Azaleko irudiak paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztuko dira. Era berean, irudiaren kopia digitala euskarri informatiko batean ere aurkeztu beharko da.
4. Teknika librea erabili ahal izango da.
5. Azalean ondorengo testua eraman beharko dute nahitaez: PENTEKOSTE JAIK 2025 BERGARA.
6. Baztertuak izango dira adikzioen prebentzioaren eta berdintasunaren irizpideen aurkako adierazpenak jasotzen dituzten lanak.
7. Lehiaketa honetara aurkeztutako lanak originalak izango dira, egileak berak sortuak, argitaratu gabeak eta beste lehiaketa batean inoiz aurkeztu gabeak. Bergarako Udalak plagioa egon denaren zantzurik ikusten badu, sortutako kalteen aurrean kalte-ordainak eskatu ahal izango dizkio plagioaren egileari.
8. Lehiaketako irabazleak 400 euro balio duten bonuak eskuratuko ditu, Bergarako komertzio-guneetan trukatzeko. Saria eman gabe ere geldi daiteke, epaimahaikoek gutxieneko kalitaterik ez dagoela uste badute.
9. Azalek ez dute egilearen nortasuna agerian utzi dezakeen ezer edukiko. Atzeko aldean lelo bat dutela aurkeztuko dira irudiak. Gutunazal itxi batean leloa kanpoan eta egilearen datuak barruan jarriko dira. Era berean, gutunazal itxi horretan ondorengo dokumentua ere sinatu beharko du irudiaren egileak: *Nik, (egilearen izen-abizenak) eta NAN zenbakia (zenbakia) dudanak, zin egiten dut kartel lehiaketa honetara aurkeztutako lana originala dela, eta beste lehiaketaren batera inoiz aurkeztu gabea (egilearen sinadura).*
10. Azalak Bergarako Udaleko BAZ zerbitzuan (Bergararren Arreta Zerbitzuan) aurkeztuko dira, 2025eko maiatzaren 6aren 13:00ak baino lehen.
11. Epaimahaiaren osaketa orekatua izango da berdintasun planean jasotzen den helburu honi erreparatuz: g.028. Udal ordezkariak herri mailan burutzen dituzten errepresentazio jardueretan emakume eta gizonen partaidetza parekidea bermatzea.

Epaia jakitera ematen den egunean jakinaraziko da epaimahaia zein pertsonak osatu duten. Udaleko Berdintasun, Prebentzio eta Kultura sailerako ordezkari bana, Jai Batzordeko ordezkari bat, komunikazioan eta diseinuan aditua den ordezkari bat eta arte disziplinan ezagutza duten herriko bi ordezkari osatuko dute. Halere, herritarrek ere izango dute bozkatzeko aukera <http://www.bergara.eus/> helbidean. Herritarrek maiatzaren

9tik 12ra bitartean bozkatu ahal izango dute eta herritarrek emandako bozkek %40ko balioa izango dute.

12. Epaimahaiko kideek hartutako erabakia aldaezina izango da.
13. Saritutako lanaz Bergarako Udala jabetuko da, eta argitaratzeko, eraldatzeko, zabaltzeko eta abarrerako eskubidea izango du. Saritu gabe gertatu diren lanak jasotzeko, jaiak hasten direnetik kontatzen hasita hilabeteko epean jaso beharko dituzte egileek. Epea amaitu ondoren egileek jaso ez badituzte, pentsatuko da ez dituztela aintzakotzat hartzen, eta Udala horietaz libreki baliatu ahal izango da. Era berean, ez da erreklamazio edo indemnizazio eskubiderik onartuko.
14. Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek onartzea.